

BERRIAK BERRI

Anoetako
udal aldizkaria

88 zenb.
2026ko apirila



BELAUNALDIAK ELKARTUZ,
HERRIA EHUNTZEN

Kuku Parkea:

Anoetaren ispilu

Egoitz Luisa Urkola
Anoetako alkatea



Hasieratik saiatu gara udal aldizkari honetan udal jardueraren berri ematen zure eskubidea delako udalean zertan gabiltzan azaltzea, beraz, gure obligazioa da mandatu hori betetzea. Baina udal jarduera azaltzeaz haratago saiatzen gara ere zuri gai erakargarriak ekartzen. Hurrengo orrialdeetan irakurriko duzun Kuku parkearen inaugurazioa nabarmendu nahiko nuke honako honetan.

Kuku parkearen irekierak aukera eman digu berriro hausnartzeko nolako herria izan nahi dugun eta zein bide ari garen urratzen Anoetan. Izan ere, sortu dugun espazio hau ez da aisialdirako gune soil bat; atzean baditu guretzat funtsezkoak diren balio batzuk.

Lehenik eta behin, belaunaldien arteko loturari eman nahi izan diogu garrantzia. Parkearen irekieran ikusi genuen bezala, adinekoak eta gazteak elkarrekin, naturan, espazio bera partekatzen. Irudi horrek ondo erakusten du zein den gure helburua: adin guztietako herritarrek elkarrekin egoteko aukerak sortzea. Harreman horiek dira, azken finean, komunitatea trinkotzen dutenak.

Gurea bezalako herri txiki eta euskaldun batean, horrek balio berezia du. Egunez egun, elkarrekin biziz eta harremanak ehunduz eraikitzen dugu gure herria, gure hizkuntza eta gure nortasuna. Horregatik, espazio partekatuak izatea ez da bigarren mailako kontua; gure etorkizunerako inbertsioa da.

Udaletik badakigu bide hori landu egin behar dela. Horregatik, azken urteetan ahalegin berezia egiten ari gara herriko adin guztietako pertsonen arteko harremanak sustatzeko. Parte-hartze prozesuak bultzatzen ditugu, baina horrez gain, egunerokoan ere harreman zuzena lantzen dugu herriko eragileekin eta herritarrekin. Elkarlana da gure lan egiteko modua.

Kuku parkea, beraz, urrats bat gehiago da bide horretan. Denon artean eraikitako eta denontzat pentsatutako espazioa da, gure herria bizigarriagoa eta zaintzaileagoa izaten jarraitzeko.

Denon ardura izango da orain espazio hau biziaraztea, zaintzea eta benetako topagune bihurtzea.

Kuku Parkea: El espejo de Anoeta

Desde el inicio hemos intentado, en esta revista municipal, informar sobre la actividad del Ayuntamiento, porque es tu derecho conocer en qué estamos trabajando; por lo tanto, es nuestra obligación cumplir con ese mandato. Pero más allá de explicar la actividad municipal, también procuramos ofrecerte contenidos atractivos. En este número me gustaría destacar la inauguración del parque Kuku, que podrás leer en las siguientes páginas.

La apertura del parque Kuku nos ha brindado la oportunidad de reflexionar nuevamente sobre qué tipo de pueblo queremos ser y qué camino estamos recorriendo en Anoeta. Este espacio que hemos creado no es solo una zona de ocio; detrás hay una serie de valores que consideramos fundamentales.

En primer lugar, hemos querido dar importancia a la relación entre generaciones. Tal y como vimos en la inauguración del parque, personas mayores y jóvenes compartiendo el mismo espacio en la naturaleza. Esa imagen refleja bien nuestro objetivo: crear oportunidades para que ciudadanos y ciudadanas de todas las edades puedan convivir. Son esas relaciones las que, en definitiva, fortalecen la comunidad.

En un pueblo pequeño y euskaldun como el nuestro, esto adquiere un valor especial. Día a día, conviviendo y tejiendo relaciones, construimos nuestro pueblo, nuestra lengua y nuestra identidad. Por ello, contar con espacios compartidos no es una cuestión secundaria; es una inversión en nuestro futuro. Desde el Ayuntamiento sabemos que este

camino requiere trabajo. Por eso, en los últimos años estamos realizando un esfuerzo especial para fomentar las relaciones entre personas de todas las edades del municipio. Impulsamos procesos participativos, pero además, en el día a día, también trabajamos el contacto directo con los agentes locales y la ciudadanía. La colaboración es nuestra forma de trabajar.

El parque Kuku es, por tanto, un paso más en ese camino. Es un espacio construido entre todas y todos y pensado para todas y todos, con el objetivo de seguir haciendo de nuestro pueblo un lugar más habitable y cuidador.

Ahora será responsabilidad de todas y todos dar vida a este espacio, cuidarlo y convertirlo en un verdadero punto de encuentro.

ELKAR-ZAINTZA



Aurreko martxoaren 10ean Anoetako hainbat biztanle bildu ziren, Zaintza Mahaiak landu duen Zaintza Plana ezagutzeko helburuarekin. Bertan, Zabalduz kooperatibako kideek lagunduta, prozesuaren ibilbidea eta hemendik aurrera eman beharreko urratsak azaldu zituzten Udalarekin elkarlanean ari diren bizilagunek.

**“Anoeta, elkar zainduz”
prozesuaren baitan
Zaintza Mahaiko
kideekin landutako
Zaintza Planaren
helburuak aurkezteko
topaketa egin da**

Encuentro para presentar los objetivos del Plan de Cuidados en Anoeta

El 10 de marzo se celebró en Anoeta un encuentro con vecinas y vecinos para dar a conocer el Plan de Cuidados trabajado por la Mesa de Cuidados dentro del proceso “Anoeta, elkar zainduz”. Con el acompañamiento de la cooperativa Zabalduz, se expuso el recorrido realizado y los próximos pasos en colaboración con el Ayuntamiento. La Mesa de Cuidados es un espacio de gobernanza formado por representantes municipales, ciudadanía y agentes locales, donde se han definido los objetivos, acciones y líneas de trabajo del plan.

El Plan de Cuidados es el documento que recoge una hoja de ruta realista para avanzar hacia un municipio más cuidador. Incluye acciones concretas organizadas en un calendario y será impulsado por la Mesa de Cuidados, con seguimiento técnico de Bogan Zerbitzuak.

Zaintza Mahaia, zer da?

Udal ordezkariak, herritarrek eta herriko eragileek osatutako gobernantza-espazioa da. Bertan landu dira prozesu honen norabidea eta eduki nagusiak: Zaintza Planaren helburu orokorrak, horiek lortzeko jarduerak eta bestelako azpi-zereginak, besteak beste.

Eta Zaintza Plana?

“Anoeta, elkar zainduz” prozesuaren baitan sortutako dokumentua da; herri zainzaileago bat eraikitze bide-orri errealista eta lurreratua. Egutegi baten arabera gauzatuko diren ekintza zehatzak jasotzen ditu. Zaintza Mahaia abiaraziko du plana, eta jarraipen tekniko egingo da Bogan Zerbitzuak enpresaren laguntzarekin.

Zein izan da prozesua?

Zaintza Planaren Lan- lerro eta helburu nagusiak:

1. Lan- lerroa: Udalaren eskumeneko ekintzak



Gizarte zerbitzuen arreta ereduaren hobetzea eta koordinazioa

- Gizarte zerbitzuen arretaren etengabeko hobekuntza
- Osakidetzarekin eta Foru Aldundiarekin elkarlana sustatu
- Enpresa hornitzaileekin koordinazioa sustatu
- Zaintzaileak zaintzea
- Herrian dauden zerbitzu eta ekimenak jasoko dituen gidaren sorrera

2. Lan- lerroa: Komunitatearen ekintzak (Udalaren laguntzarekin)

Zaintza Komunitatea sustatzea

- Herria sentsibilizatu eta loturak indartu
- Bakardadea eta harreman sareak
- Zaintzen inguruko formakuntza eta tailerrak
- Zaintza Mahaiaren gobernantza, jarraipena eta koordinazioa

Nola parte- hartu?

Parte hartze maila ezberdinak daude eta parte- hartu nahi izanez gero udaletxeko harreran edo Zaintza Mahaiko kideetara jo dezakezu zure parte- hartze mailaren arabera erantzuna jasotzeko:

- **Maila baxua:** prozesuaren inguruko informazioa jaso nahi nuke
- **Maila ertaina:** Zaintza Planeko ekintzaren batean parte hartu nahiko nuke
- **Maila altua:** Anoetako Zaintza Mahiaren parte izatea gustatuko litzaidake



“Gogoz ikusten ditut pilotari gazteak eta beraien errendimendua hobetzeko nire jakituria transmititzeak asko asetzen nau.”

ELKARRIZKETA

Xabi Tolosa, Anoetako pilotaria, profesional ibilbidea amaitu berri du. Urte askotan maila onean aritu ondoren, erretiroa hartu du, herrian arrasto polita utziz.

Nola hasi zinen pilotan, eta zer oroitzapen dituzu Anoeta Pilota Eskolako garai hartatik?

Umetan, ordu asko pasatzen genituen pilotalekuan pilotan edota beste zenbait jolasetan. Niri beti gustatzen zitzaidan pilota batekin kalera jaista eta beti osatzen ginen lagun talde bat, izan belaunaldi zaharragoz edo gazteagoz osatua, pilotan jolasteko. Herriko pilota eskolak ere arrakasta handia zuen orduan,

aisialdirako eskaintza oraingoa baino mugatuagoa baitzen. Adin guztietako lagunak biltzen ginen eta hainbeste denbora pasatuta, gozatuko genuenaren seinale izango zen.

Noiz ohartu zinen pilotak zure bizitzan bide sendoa hartuko zuela?

Edozein pilotarik bezala, nik ere nire prozesua izan nuen. Lehenik pilota bigunekin jolasten nuen eta teknika ona eskuratutakoan, tokezko pilotekin jokatzera pasa nintzen. Hasiera batean partida asko galtzen nituen baina infantil mailatik aurrera Gipuzkoako txapelketetan nabarmentzen hasi nintzen pixkanaka, baita Euskal Herrikoetan ere aurrerago. Lorpenak zeintzuk ziren ikusita, jakitun nintzen maila ona banuela behintzat.

Zer eman zizun herrian entrenatzeak eta hazteak kirolari gisa?

Alde batetik erosotasuna izan da niretzako. Pilotalekuaren ondoan bizi izan naiz eta edozein mementotan entrenatzeko aukera izatea asko eskertzen da. Horrez gain, herriko pilotazaleekin nire ibilbidean zehar izan ditudan bizipenak edota sentimenduak elkarbanatzeko aukera izateak asko lagundu dit kirolari gisa errendimenduari nahiz arlo pertsonalari begira.

Nola bizi izan zenuen profesionaletarako jauzia eta debuta?

Amets bat betetzen duzula esan daiteke. 16-18 urte nituela nire helburu nagusi izan ez arren, beti nuen buruan bueltaka ea egunen batean iritsiko zen profesional mailara jauzi egiteko unea. Txapelketa garrantzitsuenak

irabazi nituen eta nahiko modu naturalean etorri zen gorengo mailan jokatzeko aukera. 18 urterekin egin nuen debuta, artean zaildu gabeko umea nintzen oraindik.

Zein izan dira zure ibilbideko unerik gogoangarrienak?

Ez nuke momentu bat hautatuko, baizik eta ibilbidea osoa. Batzuei arrotza egingo zaie beharbada, baina errazena maila profesionalera heltzea izaten da askotan. Ondoren, urte luzez, astez aste partidak jokatzen egotea eta maila egokian aritu behar izateak du niretzako meritua. Ikusten ez den eta balioestea zaila den lan handia dago horren atzean. Enpresek ikusten badute zure errendimendua ez dela egokia edota zure mailak ez duela hobekuntzarik izango, ez dute bi aldiz pentsatzen eta ez dute kontratua berritzen. Hori izan da azken urteetan izan duten politika eta presio horrekin jardutea ez da erraza izaten.

Nola hartu duzu erretiratzeko erabakia? Zer proiektu edo asmo dituzu hemendik aurrera?

Nire eskuin eskumuturrak zeresan handia izan du nire ibilbidean, hiru lesio larri izan baititut. Hauek osatzeko 3 ebakuntza egiteaz gain, arazo konplexu ugari jasan eta ekarri dizkit. Azkenean, elkarrekiko duten loturagatik, pilota jotzea ere ezinezko bihurtu da niretzat eta enpresak ikusita nire eskumuturraren egoera zein zen, kontratua ez berritzea erabaki zuen. Orain, nire ikasketekin lotura duen lan bat bilatzea da nire asmoa.

Zer esan nahi izan du zuretzat Pilota Eskola-n lan egiteak?

Pilota eskoletan teknikari gisa aritzea gustuko lana da niretzat. Infantil, kadete eta jubenil mailako pilotariekin jarduten dut gehien bat. Gogoz ikusten ditut pilotari gazteak eta beraien errendimendua hobetzeko nire jakituria transmititzeak asko asetzen nau. Ez dakit noraino iritsiko diren, baina haien ibilbidean laguntzea eta dituzten kezkei aurre egiteko argibideak ematea gustuko dut.

Nola ikusten dituzu gaur egungo haur eta gazteak pilotarekiko?

Gaur egun, kirol nahiz aisialdi eskaintza zabala dago gure garaikoarekin alderatuz gero. Haurrak badira pilota eskoletan baina pilotarekiko duten atxikimendua ez zait iruditzen berdina denik. Guk pilota eskolaz gain, ordu asko sartzen genituen pilotalekuan lagunekin edo bakarrik lehen aipatu moduan. Gaur egun hori amaitu da. Hala ere, pilota eskolen helburu nagusia ez du zertan errendimenduan oinarritu behar. Badira beste zenbait balio interesgarri transmititu daitezkeenak eta pertsonalki oso interesgarriak iruditzen zaizkit haur eta gazteentzat.

Nola ikusten duzu haien presentzia eta bilakaera, eta zer garrantzi du zure ustez neskatoek erreferente hurbilak izateak herri mailan?

Egia esan, ez dakit anoetako egoera zein den zehazki. Hala ere, emakumezkoek eskuzko modalitatean eman dituzten aurrerapausoak azken hamarkadan aipagarriak dira. Jokoaren abiadura handiagoa da, izan ere, teknikoki eta fisikoki gorakada handia egin dute. Horrek, ikuskizuna hobetzea dakar. Gainera,


presentzia nabarmentzen hasi dira komunikabideetan, egunkarietan edo telebistan esaterako. Emakumeen pilota profesionalizatzeko bidean doala esan daiteke. Ea horrela izaten den epe motzean, denok behar baititugu eskubide berberak.

Zer garrantzi du herri batek bere kirol-egitura eta eskolei eustea?

Nire ustez, erabateko garrantzia du. Alde batetik, gazteei kirola egiteko aukera eskaintzen zaie, ohitura osasuntsuak hartuz eta balio garrantzitsuak barneratuz. Bestetik, herriko bizitza soziala indartzen du. Esaterako, pilotalekua edo kirol instalazioak elkargune bilakatzen dira, belaunaldi ezberdinak elkartuz. Gainera, horrelako egiturek etorkizuneko kirolariak sortzeko aukera ematen dute, baina batez ere pertsona hezteko tresna oso baliotsuak dira.

Nola bizi izan duzu herriaren babesaren zure ibilbidean?

Herriaren babesaren beti izan dut presente. Partida askotan egon dira herritarrak animatzen, kalean beti jaso ditut animoak eta beti jokatu dute zoragarri nirekin. Horrelako babesak memento onak gehiago gozatzen eta zailak eramangarriago egiten laguntzen du. Aipatu beharra daukat askotan izan dudala herriarekin zorretan nagoenaren sentzazioa.



HERRIA ERABERRITZEN



Ikastolako eremua berritzen

Anoetako ikastolako eremuan frontoi txiki berria izango du hemendik aurrera, ikasleek eta herritarrek eremu honetan ere euskal pilotaz gozatzeko aukera izan dezaten.

Proiektu honen jatorriaren ideia nagusia Euskal Jaiaren testuinguruan sortu zen. Izan ere, iaz ospakizun horren gaia euskal pilota izan zen, eta jaiak antolatzeko batzordean —Herri Ikastolako kideek, Udalak eta herritarrek osatua— kirol hori sustatzeko ikastolan frontoi txiki bat egitea proposatu zen.

Idea horri jarraituz, eta Udalak ekimena bultzatuta, Ikastolarekin harremanetan jarri eta elkarlanean gauzatu da proiektua. Horrela, “ikastolako eremuan frontoi txiki bat eraiki da, eta espazioaren diseinua, kokapena eta ezaugarriak bi erakundeen artean adostu dira. Gainera, eremu berriari Frontoi Txiki izena ematea erabaki da, Ikastolako haurrek egindako proposamenari jarraituz” azaldu du alkateak.

Frontoi berria sortzearekin batera, ikastola inguruko jolas- eta kirol-guneak ere egokitu dira. Horrela, futbol-zelaia berriro margotu da, eta lehendik zegoen saskibaloi-kantxa 3x3ko kantxa bihurtu da. Era berean, lurzorua berriro margotu da, baita kiroldegiko marrak ere.





Oihana Gómez
Anoetako Herri
Ikastolako
zuzendaria

Azken urteetan Anoetako Herri Ikastolan hezkuntza-eraldaketa prozesu batean murgilduta gaude. Gizartea etengabe aldatzen ari den honetan, hezkuntzak ere erronka berriei erantzun behar die. Gure helburua ez da soilik eduki akademikoak transmititzea; pertsona osoa heztea da: pentsatzen, sentitzen eta gizartean modu arduratsuan parte hartzen dakien pertsona. Eraldaketa honen erdigunean ikaslea bera dago. Ikaskuntza modu aktiboagoak sustatzen ari gara: elkarlana, proiektuetan oinarritutako lana eta egoera errealekin lotutako erronkak.

Horren bidez, ikasleek ezagutza sakonago ulertzeaz gain, kompetentzia garrantzitsuak garatzen dituzte, hala nola pentsamendu kritikoa, sormena edo talde-lana.

Aldaketa honek irakasleen begirada ere eraldatu du. Irakaslea ez da jada ezagutza transmititzen duen figura bakarra; ikaskuntza prozesuaren gidari eta laguntzaile bihurtu da. Horrek lankidetzaz handiago eskatzen du irakasleen artean eta etengabeko prestakuntza.

Bestalde, ebaluazio hezigarriaren ikuspegia indartzen ari gara. Ebaluazioa ez dugu ulertzen emaitzak neurtzeko tresna soil gisa, baizik eta ikaskuntza hobetzeko baliabide gisa. Prozesu honetan familiek ere parte-hartze aktiboa dute, ikastola eta etxearen arteko lankidetzaz sendotuz.

Eraldaketa honek, gainera, herriarekin dugun lotura indartzeko aukera eman digu. Ikastola ez da soilik ikasteko gune bat, komunitatearen parte aktiboa da baizik.

Hala ere, bide honek baditu bere erronkak. Irakasleentzat esfortzu handia eskatzen du metodologia berriak diseinatzea eta elkarlanean aritzea. Era berean, ikastolarentzat ere ahalegin ekonomikoa suposatzen du, bai irakasleen formaziorako bai espazio berriak egokitzeko.

Azken batean, bizi dugun eraldaketa ez da soilik metodologia aldaketa bat; ikasteko eta lan egiteko modua sakon aldatzen ari den prozesua da. Bidea ez da erraza, baina gure ustez beharrezkoa da gaur egungo eta etorkizuneko gizarteari erantzuteko.

Renovación del espacio de la Ikastola

El entorno de la Ikastola de Anoeta cuenta desde ahora con un nuevo frontón pequeño, destinado al uso del alumnado y de la ciudadanía.

La iniciativa surgió en el marco de la Euskal Jaia del año pasado, dedicada a la pelota vasca. A partir de esa propuesta, el Ayuntamiento impulsó el proyecto en colaboración con la Ikastola. Además, el nuevo espacio ha sido denominado Frontoi Txiki, siguiendo la propuesta realizada por el alumnado, según ha explicado el alcalde.

Asimismo, se han adecuado otros espacios: se ha repintado el campo de fútbol, la cancha de baloncesto se ha adaptado a formato 3x3 y se han renovado las marcas del suelo.

KORRIKA



korrika

Korrika 24 Anoetatik igaro da giro bikainarekin. Aurretik, Korrika txikia egin da Iruratik Anoetara, eta ondoren girotze festa ospatu da: jolasak, rap emanaldia, bingo poteo musikatua eta Barrikoten egindako afaria.

Eguna giro ederrean igaro da, parte-hartze zabalarekin. Ondoren, herritarrek Hernialdeko abidegurutzetik bat egin dute Korrikarekin, elkarlanean eta ilusioz.


Halako unek argi uzten dute: euskara bizirik dago, eta herriaren taupadarekin batera doa. Ekimen hauek gure hizkuntza eta komunitatea elkartu, sendotu eta etorkizunera bultzatzen dituzte.





HERRI JASANGARRIA

ANOETAKO KONTSUMO ENERGETIKOAK (KWH) 2023tik 2025era



Elektrizitate kontsumoa argiteri publikoan

2023an	123.004 kWh
2024ean	120.194 kWh
2025ean	121.362 kWh

Elektrizitate kontsumoa eraikinetan

2023an	135.184 kWh
2024ean	19.773 kWh
2025ean	124.347 kWh

Elektrizitate kontsumoa GUZTIRA

2023an	258.188 kWh
2024ean	249.967 kWh
2025ean	245.707 kWh

Energia-efizientziaren aldeko urrats sendoak: kontsumoa murrizten eta instalazioak berritzen

Energia-aurrezpenari dagokionez, Anoetako Udalak hainbat neurri garrantzitsu hartu ditu azken urteotan. Ildo horri jarraituz, alde batetik, kale-auditoria bat egin da 2025 urte amaieran, eta azterketa horren bidez agerian geratu da herriko zenbait instalazio, farola edo bonbila egokitu behar direla energia-efizientzia hobetzeko. Udalak dagoeneko ekin dio auditoriatik eratorritako gabeziak konpontzeari. Izan ere, azterketatik ateratako proposamenak eta eginbeharrak bi fasetan gauzatzea erabaki zen, eta horietako lehenengo zatia jada burututa dago.


Bestalde, 2025eko energia-kontsumoen datuak bildu dira, bai udal eraikinei bai udal zerbitzuei dagozkienak. Datu horiek aztertuta, ikusi da 2023. urtetik hona hartutako neurriek eragin positiboa izan dutela kontsumoan, eta hori udalaren aldeko abantaila da. Energia-efizientziaren ildotik, kiroldegiko galdararen azterketa ere egin zen, eta hortik eratorritako hobekuntzak martxan jartzen ari dira momentu honetan. Besteak beste, gasolio-depositua kendu egingo da, aerotermia-sistema instalatuko da, eta ponpak zein instalazioak gaur egungo erabilerara eta kontsumora egokituko dira.

Pasos firmes a favor de la eficiencia energética: reduciendo el consumo y renovando las instalaciones.

En materia de ahorro energético, el Ayuntamiento de Anoeta ha adoptado diversas medidas relevantes en los últimos años. A finales de 2025 se realizó una auditoría del alumbrado público, que puso de manifiesto la necesidad de adaptar varias instalaciones para mejorar la eficiencia energética. El Ayuntamiento ya ha iniciado la corrección de estas deficiencias, ejecutando las actuaciones en dos fases, de las cuales la primera ya está finalizada.

Asimismo, se han recopilado los datos de consumo energético de 2025 correspondientes a edificios y servicios municipales. Su análisis confirma que las medidas adoptadas desde 2023 han tenido un impacto positivo en la reducción del consumo. Por último, se ha llevado a cabo un estudio de la caldera del polideportivo y se están implementando mejoras como la retirada del depósito de gasóleo, la instalación de un sistema de aerotermia y la adaptación de las instalaciones al uso actual.

HERRIA ERABERRITZEN



Aurrera doaz Errotalde auzoko irisingarritasun-lanen esleipena eta Lasarbeko etxebizitza tasatuen prozesua

Azken hilabeteotan, Anoetako Udalak hirigintzaren arloan hainbat ekimen jarri ditu martxan, herritarren bizi-kalitatea eta irisingarritasuna hobetzeko helburuz. Horien artean, batetik, auzoetako irisingarritasuna hobetzeko lanak daude; bestetik, Lasarbe eremuan aurreikusitako udal etxebizitza tasatuen prozesua.

Irisingarritasunari dagokionez Egoitz Luisa alkateak azaldu du 2021.urtean azterketa bat egin zela herrian, eta bertan agerian geratu zela bi auzotan zegoela egoerarik zailena: Errotalde auzoan eta Isasti-Hozpel-Etxaburu inguruan. “Diagnostiko horri erantzuteko, Errotalde auzoan esku-hartze proiektu bat prestatu genuen. Proiektua zehaztu aurretik, parte-hartze prozesu bat egin zen auzokideekin, eta haien ekarpenak jasota onartu zuen udalak azken proposamena. Obra garrantzitsua izanik eta prozedurak eskatzen dituen pausak eman ondoren obraren esleipenera aurkeztu diren enpresen proposamenak aztertzen ari da Udala eta horren ondotik datozen hilabeteetan lanean hastea espero da.

Bestalde, Lasarbe eremuan aurreikusitako udal etxebizitza tasatuen prozesuak ere aurrera jarraitzen du. Etxebizitza horietan izena emateko epea martxoaren 13an amaitu zen. Anoetako alkate Egoitz Luisak zehaztu du epe horretan, ELKARTU elkarteak alegazio bat aurkeztu zuela, etxebizitzetako bat dibertsitate funtzionala duten pertsonentzat gordetzea eskatuz. “Alegazio hori onartu egin da eta prozesua bideratzeko lanean ari da Udala.

Ondorioz, hasierako epea amaituta dagoen arren, epe berri bat irekiko da dibertsitate funtzionala duten pertsonen etxebizitza horietan izena eman dezaten. Bestalde, lehen epean jasotako eskaerak aztertzen ari dira une honetan: guztira, 45 eskaera izan dira; horietatik, 30 anoetarrak, 10 eskualdekoak dira eta 5 eskualdetik kanpokoak.

Bi ekimen hauek —auzoetako irisingarritasuna hobetzeko lanek eta etxebizitza tasatuen sustapenak— helburu bera dute oinarrian: Anoetan bizi-baldintza hobek eta herritar guztientzako aukera berdintsuagoak bermatzea.

Avanzan la adjudicación de las obras de accesibilidad en el barrio de Errotalde y el proceso de viviendas tasadas de Lasarbe

El Ayuntamiento de Anoeta está desarrollando varias iniciativas en el ámbito del urbanismo con el objetivo de mejorar la calidad de vida y la accesibilidad de la ciudadanía.

Por un lado, avanza el proceso de adjudicación de las obras de accesibilidad en el barrio de Errotalde, un proyecto que surge de un estudio realizado en 2021, en el que se identificaron las zonas con mayores dificultades. Antes de definir la propuesta, se llevó a cabo un proceso participativo con el vecindario, cuyas aportaciones fueron incorporadas al proyecto final. Actualmente, el Ayuntamiento está analizando las ofertas presentadas por las empresas, y se prevé que las obras comiencen en los próximos meses.

Por otro lado, también continúa el proceso de las viviendas tasadas municipales en el ámbito de Lasarbe. El plazo de inscripción finalizó el 13 de marzo con un total de 45 solicitudes (30 de Anoeta, 10 de la comarca y 5 de fuera). Durante este periodo, la asociación ELKARTU presentó una alegación solicitando reservar una vivienda para personas con diversidad funcional, propuesta que ha sido aceptada. Por ello, se abrirá un nuevo plazo de inscripción dirigido a este colectivo, mientras el Ayuntamiento sigue tramitando y analizando las solicitudes recibidas. Ambas iniciativas tienen como objetivo común mejorar las condiciones de vida, fomentar la accesibilidad y garantizar una mayor igualdad de oportunidades para toda la ciudadanía de Anoeta.

HERRITARRAK ZAINDUZ

KUKU PARKEA

Lasarbe eremuaren eta Ikastolaren artean dagoen gunean, hasiera batean, bi norabideko bide bat egitea aurreikusita zegoen, ibilgailuen joan etorrirako. Hala ere, aurreko legegintzaldian hausnarketa bat egin zen: ea benetan beharrezkoa ote zen azpiegitura hori gauzatzea, edo, aitzitik, egokiagoa izango ote zen haur, nerabe eta herritarren joan-etorrietarako gune seguru bat eta aisialdirako berdegune bat sortzea.

Hausnarketa horren ondorioz, udalak azterketa bat egin zuen eremu horretako trafikoari buruz, eta ondorioztatu zuen aurreikusitako bidea neurritz kanpoko zela eta, gainera, ez zela beharrezkoa. Horrenbestez, bidea egin ordez, eremu horretan berdegune bat sortzea erabaki zen.

Proiektua zehazteko, parte-hartze prozesu bat abiatu zen, eta bertan herriko haurrek, jubilatuek, herritarrek eta elkarteek hartu zuten parte. Jasotako ekarpenak oinarri hartuta, parke berriaren diseinua landu zen.

Aldi berean, Udalak beharrezko hirigintza-aldaketak egin zituen proiektua gauzatu ahal izateko.

Parkearen ekipamenduari dagokionez, beste elementu batzuk ere txertatu dira. Besteak beste, bizikletak garbitu eta konpontzeko gune bat jarri da, herritarrek erabilera eroso eta praktikoa izan dezaten.

Behin prozesu guztiak amaituta, Kuku parkea errealitate bihurtu da, eta hemendik aurrera haurrek zein herritarrek aisialdirako eta gozatzeko gune berri bat izango dute erabilgarri. Naturarekin loturan, belaunaldi ezberdinen topagune eta herritarren arteko harremanak sustatzeko espazio ederra.

Obra honen kostu totala 408.340€koa izan da. Kostu honi aurre egiteko, eremu horretarako lehendik planteatuta zegoen errepidea ez egiteagatik udalak jasotako 357.000€ak eta Gipuzkoa Foru Aldunditik eskuratutako 35.000€ko dirulaguntza, legeak aginduta, eremu horretan inbertitu ditu udalak.

Udala gustura dago egindako lanarekin, orain guztion ardua da espazio hau zaindu eta mantentzea.



Herritarrentzako berdegune eta topagune berria

Kuku parkea: nuevo espacio verde y punto de encuentro para la ciudadanía

El parque Kuku se ubica entre el área de Lasarbe y la Ikastola, en un espacio donde inicialmente se preveía construir una vía de doble sentido para el tráfico rodado. Sin embargo, tras una reflexión realizada en la legislatura anterior, se optó por descartar esta infraestructura y apostar por un espacio seguro para peatones y una zona verde de ocio.

Para ello, el Ayuntamiento llevó a cabo un estudio de tráfico que concluyó que la carretera proyectada era innecesaria y desproporcionada. A partir de esta decisión, se impulsó un proceso participativo en el que tomaron parte niños, personas jubiladas, asociaciones y vecinos, cuyas aportaciones sirvieron para diseñar el parque.



El nuevo espacio incorpora diversos equipamientos, como una zona para limpiar y reparar bicicletas. Asimismo, se realizaron las modificaciones urbanísticas necesarias para hacer viable el proyecto.

El parque Kuku es ya una realidad y se presenta como un lugar de encuentro intergeneracional, vinculado a la naturaleza y al disfrute ciudadano. La inversión total ha ascendido a 408.340,21 euros, financiados en gran parte con los fondos previstos para la carretera no ejecutada y con una subvención de la Diputación Foral de Gipuzkoa.

El Ayuntamiento valora positivamente el resultado y subraya la importancia de cuidar y mantener este nuevo espacio entre todas las personas usuarias.



IRISGARRITASUNA LANTZEN



Udal eraikinaren egokitzapena

Anoetako Udalak 37 urteko ibilbidea du, eta denbora horretan zehar nabarmen aldatu dira bai zerbitzuak emateko moduak, bai herritarrek zerbitzu horiek jasotzeko dituzten beharrak. Gizartearen bilakaerarekin batera, administrazioaren jarduteko modua ere egokitzen joan da.

Testuinguru horretan, Udalak hausnarketa egin zuen bere antolaketa egokia ote zen herritarrei zerbitzu hurbila eta eraginkorra eskaintzeko. Ondorioz, egungo antolaketa berrikustea eta espazioen erabilera birpentsatzea erabaki zen. Helburu horrekin, udal eraikinaren beheko solairua egokitzeko lanak egin dira.

Egokitzapen horren bidez, herritarren harrera-gunea eta zerbitzu administratiboak lehen solairura jaitsi dira. Era berean, gaur arte hirugarren solairuan zeuden teknikarien bulegoak ere lehen solairura lekualdatu dira. Alkateak dio bulego guztiak modu egokian antolatzea eta espazio berean kokatzea ez dela lan erraza izan, baina prozesua amaituta, egokitzapena errealitate bihurtu da. “Hemendik aurrera, helburua da herritarrei arreta hurbilagoa eta eraginkorragoa eskaintzea, udal zerbitzuak modu erosoagoan eskuratu ahal ditzaten” Egoitz Luisaren iritziz.

Adecuación del edificio municipal

El Ayuntamiento de Anoeta, con 37 años de trayectoria, ha adaptado su organización a las nuevas necesidades sociales y administrativas. Tras una reflexión interna, se ha reorganizado el uso de los espacios para mejorar la atención ciudadana.

Se ha acondicionado la planta baja, trasladando a la primera planta el servicio de atención al público, los servicios administrativos y las oficinas técnicas.

Según el alcalde, aunque el proceso ha sido complejo, el objetivo es ofrecer a partir de ahora una atención más cercana, eficaz y accesible para la ciudadanía.

LABURRAK



Martxoaren 8a Anoetan

Martxoaren 8an, Emakume Langileen Nazioarteko Eguna dela eta, hainbat ekimen egin ziren Anoetan, herritarrek feminismoaren aldarriarekin bat eginez. Aurtengo leloa “Beste mundu bat feminismitik. Zapalkuntza sistemen aurrean: antolakuntza eta borroka” izan da.



Eguna 10:30ean hasi zen eragileen lokalean egindako kafe-tertuliarekin. Ondoren, 12:00etan elkarretaratzea egin zen plazan, eta jarraian, Zubian ekitaldi bat izan zen. Jardunaldia amaitzeko, 14:00etan emakumeen bazkaria ospatu zen Kukun.

Ekimenek herritarren parte-hartze zabala izan zuten, eta Anoetako kaleetan agerian geratu zen berdintasunaren, justizia sozialaren eta emakumeen eskubideen aldeko konpromisoa. Martxoaren 8ak, beste behin ere, feminismoa ezinbesteko tresna dela gogorarazi zuen, gizarte bidezkoago eta berdinzaleago bat eraikitzeko bidean.

8 de marzo en Anoeta

Con motivo del Día Internacional de las Mujeres Trabajadoras, el 8 de marzo se celebraron diversas actividades en Anoeta bajo el lema “Otro mundo desde el feminismo. Frente a los sistemas de opresión: organización y lucha”.

La jornada comenzó con un café-tertulia, seguido de una concentración en la plaza y un acto en Zubia. Finalizó con una comida de mujeres.

Las actividades contaron con amplia participación y reflejaron el compromiso del municipio con la igualdad, la justicia social y los derechos de las mujeres.

Zibersegurtasuna udal administrazioan

Azken urteotan, udal administrazioak gero eta gehiago bihurtu dira zibererasoen jomuga. Egoera horren aurrean, beharrezkoa da neurriak hartzea erakundearen segurtasuna eta kudeatzen duten informazioa behar bezala babesteko.

Horregatik, Anoetako Udalak zibersegurtasunari lotutako araudi eta protokolo bat abiarazi eta onartzea erabaki du. Helburua da udalaren informazioa eta baliabide digitalak babesteko jarduteko moduak eta segurtasun-neurriak ezartzea.

Izan ere, gero eta udal gehiago ari dira halako erasoaren biktima izaten, eta horrek kezka sortzen du administrazio publikoen funtzionamendu egokia eta informazioaren babesa bermatzeko orduan. Testuinguru horretan, presentzioa eta antolaketa egokia funtsezkoak dira arrisku horiei aurre egiteko.

Anoeta, birziklapenean eredugarri

Anoetan hondakinak ondo bereizten dira, eta datuek argi erakusten dute bide onetik doala. 2025ean guztira 533.898 kilo hondakin bildu ziren, eta horietatik %74,85 gaika bereizi ziren.

Bereizketaren artean nabarmentzekoa da organikoaren bilketa (118.094 kg), ontzi arinak (110.573 kg) eta papera (73.877 kg), baita beiraren bilketa ere (60.191 kg). Gainera, herriko etxebizitzetan %36k autokonpostajearen edo auzokonpostajearen parte hartzen du; horri esker hondakin gutxiago bildu behar izaten da, kostuak murrizten dira eta ingurumenari mesede egiten zaio.

Emaitza on horiek herritarren konpromisoaren adierazgarri dira. Horregatik, garrantzitsua da ohitura onekin jarraitzea: hondakinak ondo bereizteak ingurunea zaintzen laguntzen du eta Anoeta herri jasangarriagoa egiten du.

Anoeta, ejemplo en reciclaje

En Anoeta los residuos se separan correctamente, y los datos muestran claramente que se avanza por el buen camino. En 2025 se recogieron un total de 533.898 kilos de residuos, de los cuales el 74,85 % se separaron por fracciones.

Entre los datos de recogida selectiva destacan la materia orgánica (118.094 kg), los envases ligeros (110.573 kg), el papel (73.877 kg) y el vidrio (60.191 kg). Además, el 36 % de las viviendas del municipio participa en el autocompostaje o en el compostaje comunitario; gracias a ello se reduce la cantidad de residuos recogidos, se disminuyen los costes y se contribuye al cuidado del medio ambiente.

Estos buenos resultados reflejan el compromiso de la ciudadanía.





“Sozializatzeko aukera hori nabarmenduko nuke: jende berria ezagutu dut, eta animo aldetik ere lagungarria dela esango nuke”

Maria Gortazar Anoetan bizi den 82 urteko emakumea da, eta hasieratik ari da Ttipi-Ttapa egitasmoan parte hartzen. Bere esperientziatik abiatuta, egitasmoak eguneroko bizitzan ekarri dizkion onurak eta bizipenak partekatu dizkigu.

Nola ezagutu zenuen Ttipi-Ttapa egitasmoa?

Lagun baten bidez ezagutu nuen egitasmoa. Ostegunetan memoria-tailerrera joaten gara, eta hark aipatu zidan hileko lehen astean Ttipi-Ttapa egitasmoa egiten dela; horren harira, berarekin batera animatu nintzen parte hartzera.

Zerk animatu zintuen parte hartzera?

Ttipi-Ttapan nire senarrarekin parte hartzen dut, eta bioi gustatzen zaigu herrian antolatzen den edozein ekintzatan parte hartzea. Beste herrikideekin harremana izateak ere animatu ninduen. Gainera, bertan taldetxo bat osatzen dugu, eta beti izaten duzu norbait berriarekin hitz egiteko aukera.

Zer da zehazki egiten duzuen?

Goizeko 10:30ean elkartzen gara herriko plazan, eta buelta bat ematen dugu herrian barrena; guztira, 40 minutu inguru ibiltzen gara oinez. Ondoren, normalean jubilatura joaten gara, eta han zerbait hartzen dugu 12:30ak arte.

Zenbat denbora daramazu parte hartzen?

Ez naiz jada ohartzen zenbat urte daramatzadan, baina ia lehen saiotik ari gara parte hartzen. Ahal dugun neurrian jarraituko dugu joaten.

Zer ekarri dizu egitasmoak zure eguneroko bizitzara?

Nire senarra eta biok egunero irteten gara oinez ibiltzera, eta sasoi onean gaude. Nire ustez, jendearekin harreman gehiago izateko aukera eman digu, eta elkarrekin egoteko uneak sortu dizkigu. Sozializatzeko aukera hori nabarmenduko nuke: jende berria ezagutu dut, eta animo aldetik ere lagungarria dela esango nuke.

Hortaz, jendea bertan parte hartzera animatuko zenuke?

Inongo zalantzarik gabe.

Talde giro ona izango duzue, ezta?

Oso ona. Beti duzu gehiago harremanetan aritzen zaren norbait, baina, oro har, giro ederra izaten dugu, eta edonor da beti ongietorria.

Anoeta Herri Eskolako gaztetxoak ere animatzen dira?

Bai, bai. Ikastolako neska-mutilak etortzen dira, eta jendeari laguntza ematen diote. Bai eurentzat, bai guretzat, oso aberasgarria da belaunaldien arteko aldea eta kontrastea. Haietzat gu beren aiton-amonen modukoak gara, eta horrek samurtasuna eta zaintzarekiko hurbiltasuna sortzen ditu. Oso ondo parte hartzen dute.

